

UPV/EHUko emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. planaren 2.1 puntuan aurreikusitako **“Ikerkuntza berdintasunean aurrera egiteko ekintza zuzentzaileak proposatzea”** ekintza betez, hau da, ikerketa arloan berdintasuna bultzatze aldera, ikerketa arloko emakumeen eta gizonen egoera ezagutzeko eginiko diagnostikoak honako hau erakutsi du:

1. Ikerketa proiektuen eta doktorego tesien zuzendaritzan alde handia dago emakume eta gizonen artean.
 - Ahal bezain laster, emakumeek ikerketa proiektu gehiago, ikerketa talde gehiago eta doktorego tesi gehiago zuzentzea sustatzeko eta lortzeko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira.
2. Ikerketa proiektuetan ez da genero ikuspegia txertatzen.
 - UPV/EHUko ikerketa proiektuetarako deialdietan, puntuatutako balorazio irizpideen artean genero ikuspegia kontuan hartzea barne har dadin gomendatzen da.
3. Genero ikuspegia kontuan hartzen duten ikerketa proiektuen kopurua txikia da.
 - UPV/EHUko genero ikuspegia kontuan hartzen duten proiektuetarako deialdi espezifiko bat egitea gomendatzen da.
4. UPV/EHUko ikerketan zein pertsonalean dauden datu-baseetan oso informazio interesgarria du, egoeraren diagnostikoak egiteko eta erakundea hobetzeko erabakiak hartzeko erabilgarria dena.
 - Lau urtez behin, gutxienez, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eta Pertsonaleko Gerenteordetzak diagnostiko bat egitea gomendatzen da, ahal duten osatuena, gizon eta emakumeen egoera alor bakoitzean ezagutzeko, eta baita ere genero-ikuspegia barneratzen duen ikerkuntzaren bilakaera.